



## HYDRA

Anabel Quincoces

2022ko otsailaren 25etik apirilaren 24ra  
Del 25 de febrero al 24 de abril de 2022



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

2011tik, ura, bertako biztanleak eta bizirauteko garatzen dituzten mutazioak izan dira nire ikerketa eta praktika artistikoaren ardatza.

Ura eta bertako biztanleak, gure jatorrien analogia gisa; horregatik, hara itzultzen gara gure bilaketan, ur azaleratik kanpo, zaratatik urrunduz, argi pentsatzea eragozten digun zaratatik. Hondoraino jaisten naiz, lokatz horetan eta hondakin horietan gure arbasoekin egiten baitugu topo, antzinako aztarna eta izakiekkin.

Ur-biltegia azpimundu bateko —ibaietako— biztanlez betetzen da, eta lohi horiek lurralde mintzodun bihurtzen dira, eta lekuko, ikusleei espazioaren eta perspektibaren zentzua galarazten dien zitoplasma baten antzera.

Hidrei, horien morfologiari eta aldatzeko eta birsortzeko duten ahalmen ikaragarriari erreparatz gero, ohartuko gara animalia gutxik berdindu dezaketela ur gezako hidraren erresilientzia, haren garroak, literalki, guztiz txikitu egin baitaitezke, eta animalia osasuntsu gisa birstortu. Izan ere, memoria estructurala dute, eta horrek gorputz-plan berria era-tzen laguntzen die.

*Hydra* Ur-biltegirako berariaz pentsatutako esku-hartze artistikoa da, lekuak dituen konnotazioak eta egitura kontuan hartuta.

Espazioari egokitutako eskultura-instalazioek osatzen dute, bizitza berri batez betez, Jon Bellido konpositorearen urpeko eta izarreko soinuen musikaz lagunduta; David Sagastume kontratenorak ere parte hartu du soinu-pieza batean.

Añanako Gatz Haraneko artemia parthenogenetikoak ere aipatzen ditut, desagertzeko arriskuan daudelarik ahanzturan eror ez daitezen.

Desde el 2011, centro mi investigación y práctica artística en las instalaciones con la temática de las aguas y sus habitantes, y las mutaciones que desarrollan para lograr sobrevivir.

El agua y sus moradores, comoanalogía de nuestros orígenes, y por lo tanto donde volvemos para buscar, fuera de la superficie, alejándonos del ruido, ese que impide pensar con claridad. Bajo al fondo, donde en ese fango y en esos restos nos encontramos con nuestros ancestros y antiguos vestigios y criaturas.

El Depósito de Aguas se llena de habitantes de un submundo referido a los moradores de las aguas fluviales y hace de esos limos un territorio parlante, testimonial, como un citoplasma donde el espectador pierde el sentido del espacio y la perspectiva.

Centrándome en las hidras, en su morfología y sus extraordinarias capacidades de cambio y regeneración vemos que pocos animales pueden igualar la resiliencia de la hidra de agua dulce con esos tentáculos que se pueden, literalmente, triturar en pedazos y regenerar en animales sanos.

Tienen memoria estructural, lo que les ayuda a dar forma a su nuevo plan corporal.

*Hydra* es una intervención artística pensada específicamente para el Depósito de Aguas, por sus connotaciones y su estructura.

Está formada por instalaciones escultóricas adaptadas a su espacio, inundándolo de una nueva vida, acompañadas por la música de sonidos subacuáticos y estelares del compositor Jon Bellido y la colaboración del contratenor David Sagastume en una pieza sonora.

Hago alusión también a las Artemias Parthenogenéticas del Valle Salado de Añana, criaturas en peligro de extinción para que no queden en el olvido.